

ALDATZEN ARI DEN MUNDUA

Lan-Harremanak aldizkariaren zenbaki honek funtsezko bi oinarri ditu: lan-harremanak eta horien testuinguru juridikoa eta legala. Bi elementuen artean erlazio dialektiko estua dago eta gogoetarako aukera anitzak eskaintzen ditu; gure asmoa ez da horiek guztiak oraingoan agortzea. Hala ere, kontuan hartu behar da gogoetarako aukera anitzen artean bereziki garrantzitsuak diren bi ditugula, hain zuzen: output edo lan-harremanetatik sortzen diren produktuak æekoizpen-erlaziotik sortutako produktuak, nolabait esatekoæ, eta legeria errealitate berrietara egokitzea, versus errealitateak (laneko errealitateak) legeria berrira egokitzea.

Aipatu dugun lehenengo elementu horri dagokionez, Andreu Lope, Daniel Ortiz eta Francesc Gibert adituek enpresara egin beharreko mesometakuntzaren translazioaren zailtasuna, eta enplegu-modu berriekin duen lotura aztertu dute; M.^a Eugenia Senisek enplegu atipikoak Europan eta bereziki denbora partzialekoaren bilakaeraren errebasoa egiten du; Rosa Ahumada adituak Enpleguaren Pentsio Planen berezitasunak, arazoak eta izan daitezkeen konponbideak aztertu ditu; Mikel de la Fuente eta Jaime Segales adituek, berriz, López Gandia-ren txosten bat landu dute, Gobernuak eta CCOO sindikatuak pentsioen esparruan lortutako akordioari buruzkoa.

Bigarren elementua, gogoan izan, legei buruzkoa da. Esparru honekin lotuta kokatuko ditugu, esate baterako, José Luis Monereo Pérez jaunak egindako ekarpena, zeinek gizarte-babeserako eredia berraztertzen ari direla defendatzen duen, hartara gutxienezkoen Gizarte Segurantzaren ziurtatzeko, egoera berriaren legitimatzaile bezala sindikatuen parte-hartzea izango dugularik; M.^a Eugenia Senisek, laneko legeria erreformatu eta kontratazio atipikoen ondorioak aztertu ditu, bai eta Europako Batasunean eta Espainian dituen ezaugarriak ere, eta horrez gain, enplegua sortzeko lanabes bezala erabiltzearen inguruan gogoeta egin du; Juan Pablo Landa-k enplegu-zerbitzuek enplegu-politiken diseinuan betetzen duten zeregina aztertu du, eta zerbitzu horiek Enpleguaren Oinarrizko Legearen baitan aldatzeko beharra ere aztertu du.

Amaitzeko, Mikel de la Fuente-k eta Jaime Segales-ek bi txosten osagarri aztertu dituzte: bata, Manuel Ramón Alarcón-ena, atzerriartasunaren esparruko araudien erreformari buruzkoa, eta bestea, Julio López-ena, enpleguari eta lehia-

kortasunari buruzkoa. Aipatu bi txosten horiek, Juan Pablo Landaren txostenarekin batera, eta gobernua-CCOO akordioari buruzkoarekin batera, lehen aipatua, 2001eko apirilean, Euskal Herriko Unibertsitateko Lan Harremanetarako Unibertsitate Eskolan antolatutako Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideari buruzko I. Jardunalditik hartutako ekarpenak dira.

Txostenen eduki baliotsua eta kalitate handia kontuan hartuta, LAN-HARREMANAK aldizkariko Erredakzio Kontseiluak aldizkariaren zenbaki honetan bertan azaldutako ideia interesgarrienak biltzea erabaki zuen; horrez gain, ideia horien inguruko gogoeta sustatu zen, esparru desberdinetatik, horretarako artikulua desberdinak argitaratu direlarik (gehienak honako argitalpen honetarako berariaz landu dira).

Ohikoa denez, LAN-HARREMANAK aldizkariko lan-taldeak aldizkariko edukiak interesgarriak izatea espero du, eta txostenen egileei, harpidedunei, argitalpena aurrera ateratzea ahalbidetu duten erakundeei, eta aldizkariaren irakurle guztiei 2002 urte oparoa eduki dezazuen opa dizuegu.

JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA
LAN-HARREMANAK zuzendaria